



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Indarkeria matxistaren gaitzesteko adierazpena

ARRASATEKO UDALAKO ALDERDI GUZTIEK azaldu nahi dugu irmoki gaitzesten dugula Arrasaten joan de astebukaeran gertatutako eraso matxista.

Gogorarazi nahi dugu eraso matxistak emakumeenganako indarkeriaren arazoaren alderdi bat baino ez dutela erakusten.

Emakumeenganako indarkeria (psikologikoa, ekonomikoa, fisikoa, sexuala) emakumeen duintasunaren eta segurtasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria da, eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa larri eta onartezina.

Eraso honek berriro dakarkigu gogora erakundeek eta euskal gizarte osoak daukagun erantzukizuna, gure udalerrietan Berdintasuna eraginkor egiteko. Zentzu horretan, gure sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak indartzen jarraituko dugu.

UDALEKO ALDERDI GUZTIEK elkartasuna adierazi nahi diete erasotua izan den emakumeari, bere senideei eta lagunei.

Arrasateko udaleko alderdi guztiek, bihar arratsaldeko 19:00tan herriko plazan, emakumeen mundu martxak deitu duen gaitzespen konzentrazioan parte hartuko dugu. Honekin batera, herritarrei parte hartzera animatzen diegu.